



PL0770105-ALBAITARIEK BOTIKA-KUTXAREN BERRI EMATEKO KOMUNIKAZIOA

ALBAITARIAREN DATUAK			
DEITURAK ETA IZENA			NANa
TELEFONOA	SAKELAKO TELEFONOA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	
ZEIN PROBINTZIATAN DEN ELKARGOKIDE			ELKARGOKIDE ZK.
BOTIKA-KUTXAREN KOKALEKUA			
HELBIDEA			
POSTA KODEA	HERRIA	UDALERRIA	
UTM KOORDENATUAK (SITNA)			
X-			
Y-			
ALBAITARITZAKO ERAKUNDE JURIDIKOAREN SOZIETATE-IZENA			
Soilik baldin eta botika-kutxa albaitaritza-enpresa baten instalazioetan badago:			
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA			
HELBIDEA	POSTA KODEA	HERRIA	UDALERRIA
TELEFONOA	SAKELAKO TELEFONOA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	
KLINIKA-UNITATE IBILTARIAK			
IBILGAILUAREN MATRIKULA:			
AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK: Zirkulazioko baimena			

ADIERAZTEN DUT: Ezagutzen eta betetzen dudala 666/2023 Errege Dekretuaren 37. artikulua eta, bereziki, beharkizun hauek:

1. Bermatu beharko da botika-kutxa beti dagoela haren ardura duen albaitariaren zaintzapean. Halaber, botika-kutxa erabiltzen duten beste albaitari batzuk identifikatzeaz eta haiei buruzko informazioa emateaz arduratuko da.
2. Albaitariaren botika-kutxa ezin da egon abeltzari batean, salbu eta albaitariaren egoitza abeltzarian berean badago eta hartan bakarrik jarduten badu.
3. Sendagaiak farmazia-bulego edo txikizkako saltzaile baimenduen bidez erosiko dira, eskaera-orri baten bidez eskatu ondoren; 666/2023 Errege Dekretuaren 37.6 artikuluan adierazitakoa jasoko da eskaera horretan.

4. Albaitariak bere zaintzapean dauden animaliei emanen dizkie botika-kutxako sendagaiak.
5. Albaitariak ekoizpen-animaliei ematen badizkie sendagaiak, hala adierazi beharko du sendagai-tratamenduen erregistroan eta albaitari-bisiten erregistroan. Hala ere, tratamenduen erregistroan jaso beharreko informazioa eskura badago errezeten kopian, ez da beharrezkoa izanen informazio hori bereizirik erregistratzea.
6. Albaitariak irabazi asmorik gabe lagatzen ahalko dizkio sendagaiak animaliaren titularrari edo arduradunari, tratamenduarekin jarrai dezan, arriskua badago tratamendua eteteko. Hala ere, albaitariak bakarrik aplikatu beharreko sendagaiak ezin izanen dira laga.
7. Sendagaiak gordetzeko, fabrikatzaileak gomendatutako edo ezarritako baldintza orokorrak eta berariazkoak bete beharko dira.

Data:

(Sinadura eta Zigilua)

Izena eta bi deitura:
NANA/IFZa:

DATU PERTSONALAK BABESTEAREN GAINEKO INFORMAZIOA

Bi arau hauekin bat: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

ZURE DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNA: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Helbidea: González Tablas kalea 9 - 31005 Iruña. Helbide elektronikoa: gestinfo@navarra.es

Datuen babeseko ordezkaria: Helbide elektronikoa: dpd@navarra.es

ZURE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN HELBURUA

Datu pertsonalak tratatuko dira honako hau kudeatzeko: "PL0770105-ALBAITARIEK BOTIKA-KUTXAREN BERRI EMATEKO KOMUNIKAZIOA"

Helburu estatistikoetarako ere erabiliko dira. Datu pertsonalak prozedura izapidetzeko eta ebazteko behar den denboran gordeko dira.

ZURE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA

Datuak tratatzea beharrezkoa da legezko betebeharrak betetzearen: albaitariak botika-kutxaren berri ematea. 666/2023 Errege Dekretua

DATUEN NAZIOARTEKO LAGAPEN EDO TRANSFERENTZIEN HARTZAILEAK

Datuak lagatzen ahalko zaizkie Nafarroako Gobernuaren beste organo batzuei, baita beste administrazio publiko batzuei edo kontrolleko agintari, epaimahai eta erakunde publikoei ere, beren egitekoak bete ditzaten.

INTERESDUNEN ESKUBIDEAK

Interesdunak eskubidea du datu pertsonaletan sartzeko, haiek zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatzeko, kontra egiteko eta datuak eramateko. Horretarako, idatzizko eskaera igorri behar dio Departamentuko Informazioa Kudeatzeko Atalari, goian adierazitako helbidera edo gestinfo@navarra.es helbide elektronikora, eta bere NANaren edo identifikazio-agiri baliokidearen kopia erantsi beharko du. Halaber, interesdunek Datuak Babesteko Espainiako Bulegora jo dezakete erreklamazio bat aurkezteko, uste badute ez zaiola behar bezala erantzun beren eskaerari.

DATUEN JATORRIA, INTERESDUNAK BERAK EMAN EZ DITUENEAN

Zure eskaerarako beharrezkoa bada, administrazio publikoaren eskuan dagoen informazioa egiaztatuko da.

INFORMAZIO OSAGARRIA: Honako web-orri honen bidez: www.gobiernoabierto.navarra.es/eu